



ORIOKOUNDALA

Euskaraz 
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2020ko abenduaren 23a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Amaia Gozategi Urbieta (EAJ) zinegotziak adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 10/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 11/2020 zenbakidun kreditu aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 3.- Bertan behera uztea, egoki bada, 2020ko udal-aurrekontu propioaren kreditu ez erabilgarri batzuk.
- 4.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, udal-eraikinen kontzesio administratiboan kanonaren ordainketari buruz.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Eusko Gudari 54 eraikineko etxabeko merkataritza-lokalaren salerosketa, eta alkateari ahalmena ematea salerosketaren eskritura publikoa sinatzeko.
- 6.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, alkatearen urtarrilaren 2ko 1/2020 dekretuari dagozkion administrazio-egintzak interes publikorako kaltegarritzat jotzeari buruz.
- 7.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari. Aldaketa puntuala Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokie eta Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatu du.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 10/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 10/2020 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 52.715 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko abenduaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2020ko aurrekontuari dagokion 10/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 52.715 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 11/2020 ZENBAKIDUN KREDITU ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 11/2020 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 181.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko abenduaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2020ko aurrekontuari dagokion 11/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 181.000 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:



- a) **Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza–Kontu-hartzaitetza
- b) **Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.
- c) **Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.
- d) **Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.
- e) **Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
- f) **Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- BERTAN BEHERA UZTEA, EGOKI BADA, 2020KO UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN KREDITU EZ ERABILGARRI BATZUK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko abenduaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

BERTAN BEHERA UZTEA 2020ko udal-aurrekontu propioaren kreditu ez erabilgarri batzuk, guztira 489.856 eurokoak.

4.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-ERAIKINEN KONTZESIO ADMINISTRATIBOEN KANONAREN ORDAINKETARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko abenduaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- BOGA-BOGA taberna-jatetxea kokatuta dagoen udal-eraikinaren kontzesio administratiboaren kanonari %50eko hobaria **APLIKATZEA**. Beraz, ordaindu beharreko kanona 9.537,47 eurokoa izango da (BEZa barne).

2.- MOLA-MOLA taberna-jatetxea kokatuta dagoen udal-eraikinaren kontzesio administratiboaren kanonari %35,77ko hobaria **APLIKATZEA**. Beraz, ordaindu beharreko kanona 8.472,14 eurokoa izango da (BEZa barne).

3.- ORIOKO BARRA taberna-jatetxea kokatuta dagoen udal-eraikinaren kontzesio administratiboaren kanonari %45eko hobaria **APLIKATZEA**. Beraz, ordaindu beharreko kanona 12.354,15 eurokoa izango da (BEZa barne).

4.- BALEA taberna-jatetxea kokatuta dagoen udal-eraikinaren kontzesio administratiboaren kanonari %36,55eko hobaria **APLIKATZEA**. Beraz, ordaindu beharreko kanona 10.699,96 eurokoa izango da (BEZa barne).

Emandako botoa azaltzeko, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarrak erabaki hau hartu badu eta, beraz, aipatutako hobariak aplikatuko baditu, COVID-19aren pandemiagatik izan dela. Adierazten du martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretuaren 34.4 artikulua xedatzen duela kontzesiodunek eskubidea dutela izandako kalteen ordainketa eskatzeko, kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioa bermatzeko. Alkateak esaten du, baita ere, erabakia hartu aurretik, udal zerbitzu teknikoaren txostenak eskatu dituela Udalak: udal-kanpineko zuzendariarena; turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-teknikariarena; eta kontabilitate-teknikariarena.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKO GUDARI 54 ERAIKINEKO ETXABEKO MERKATARITZA-LOKALAREN SALEROSKETA, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA SALEROSKETAREN ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lokala Orioko 2166 zenbakidun finkan dago eta 7092062 erreferentzia du katastroan.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza batzordeak 2020ko abenduaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- **ONARTZEA** Orioko Eusko Gudari 54 eraikineko etxabeko merkataritza-lokalaren salerosketa. Lokala LORENZA ASCENSION URIA GARMENDIAREN jabetzakoa da, Orioko 2166 finkan dago eta 7092062 erreferentzia du katastroan.

Salerosketaren prezio osoa 250.374,57 eurokoa da.

2.- **AHALMEN ZABALA EMATEA** alkateari merkataritza-lokal horren salerosketako eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.



Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate lehen alkateordeak hartzen du hitza, eta adierazten du merkataritza-lokal horren erosketa aldez aurretik aztertu eta adostu dutela udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek, eta bi aukera egon direla mahai gainean: bata Ibai Ondo kalean eta bestea Eusko Gudari kalean; lokal horretan, etorkizunean, Orioko Udaltzaingoaaren bulegoak kokatuko dira, indarrean dagoen araudia betetzeko.

6.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN URTARRILAREN 2KO 1/2020 DEKRETUARI DAGOZKION ADMINISTRAZIO-EGINTZAK INTERES PUBLIKORAKO KALTEGARRITZAT JOTZEARI BURUZ.

Urriaren 15eko 461/2020 alkate-dekretuaren bidez, hau erabaki zen, hitzez hitz:

- 1.- INICIAR de oficio procedimiento de declaración de lesividad de acto anulable, con relación al Decreto de Alcaldía nº 1/2020, de 2 de enero, por el que se resuelve CONCEDER a MARINA LERTXUNDI MANTEROLA, en nombre y representación de MARTIN GARRO SOLLA, la preceptiva licencia municipal de obras para proceder a la ejecución de una vivienda unifamiliar en la parcela de resultado nº 10 del ámbito urbanístico de Bikamiota en Oriu (Bikamiota nº 9), con las condiciones señaladas en la parte dispositiva de la resolución de referencia.*
- 2.- Que por parte de la Secretaría municipal se emita informe jurídico al respecto.*
- 3.- Que, instruido el procedimiento e inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución, se conceda trámite de audiencia a quienes consten como interesados en el expediente.*

Udal-idazkariak 2020ko urriaren 15ean emandako txosten juridikoak hauek jasotzen ditu ondorio gisa:

LEHENENGOA.- Alkateak urtarrilaren 2ko 1/2020 Dekretuaren bidez erabaki zuen udal obra-baimena ematea MARINA LERTXUNDI MANTEROLARI, MARTIN GARRO SOLLAREN izenean, Orioko Bikamiota eremu urbanistikoko 10. partzelan (Bikamiota, 9. zenbakia) familia bakarreko etxebizitza bat egiteko baldintza jakin batzuekin. Erabaki horrek deuseztagarritasun-arrazoia ditu, gutxienez honako gai honetan:

Hegalkina egiten den fatxadaren gaineko hegalkin-azaleraren gehieneko portzentajea: udal-arkitektoak aplikatutako interpretazio-irizpideak zalantzak sortzen ditu, eremuaren antolamendu urbanistikoaren edukia ikusita. GARRIGUES abokatu-bulegoko Martí Rius Coma abokatuaren eta sinatzen duenaren iritziz, egokiagoa da Plan Partzialaren literaltasunaren araberako interpretazio-irizpide bat aplikatzea, hegalkinen gehieneko portzentajea hegalkina dagoen fatxada-azaleraren gainean konputatuz. Plan Partziala literaltasunez aplikatzen bada, hegalkinak ez datoz bat antolamendu urbanistikoarekin.



BIGARRENA.- Orioko Udalak egintza administratibo hori berrikusi behar du, egintza deuseztagarrien kaltegarritasun-adierazpen baten bidez, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 107. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

KONTUAN HARTZEKO: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 107. artikulua arautzen ditu egintza deuseztagarrien kaltegarritasun-adierazpenak. Tramitatu den espedienteak jasotzen ditu: udal-idazkariak 2020ko urriaren 15ean egindako txostena, interesatuen alegazioen tramitea eta interesatuek aurkeztutako alegazioak (2020ko azaroaren 11ko data eta 1871, 1872 eta 1869 sarrera-zenbakiak; eta 2020ko azaroaren 30eko data eta 1988 sarrera-zenbakia). Udal-idazkariak ebazpen-proposameneko txostena eman du 2020ko abenduaren 15ean non, hitzez hitz, hau ondorioztatzen den:

PRIMERO.- *Incorporar al expediente las alegaciones presentadas por las personas que se relacionan en la parte expositiva de la presente propuesta de resolución y estimar y desestimar las mismas, en el sentido señalado en la citada parte expositiva.*

SEGUNDO.- *Declarar la lesividad para el interés público del Decreto de Alcaldía nº 1/2020, de 2 de enero, por el que se resuelve CONCEDER a MARINA LERTXUNDI MANTEROLA, en nombre y representación de MARTIN GARRO SOLLA, la preceptiva licencia municipal de obras para proceder a la ejecución de una vivienda unifamiliar en la parcela de resultado nº 10 del ámbito urbanístico de Bikamiota en Orio (Bikamiota nº 9), con las condiciones señaladas en la parte dispositiva de la resolución de referencia, por haberse dictado con infracción del ordenamiento jurídico, de acuerdo con el artículo 48.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, teniendo, por tanto, carácter de acto anulable; todo ello, en virtud de lo dispuesto en el artículo 107 de la citada Ley 39/2015, de 1 de octubre.*

TERCERO.- *Proceder a la ulterior impugnación de dicho acto administrativo anulable ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, de acuerdo con lo establecido en el artículo 107.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

CUARTO.- *Facultar a la Alcaldía para dictar cuantos actos resulten precisos para la ejecución del presente acuerdo.*

QUINTO.- *Notificar el presente acuerdo a los interesados en el expediente.*

KONTUAN HARTZEKO: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.l) artikulua xedatzen du alkateak eskumena duela udalbatzarrari kaltegarritasun-deklarazioa proposatzeko eta eskumen hori, 21.



artikulu horren 3. paragrafoaren arabera, ezin dela beste inoren esku utzi. Tramite hori abenduaren 16ko 547/2020 zenbakidun alkate-dekretuaren bidez bete da.

Aipatutako aurrekarien eta xedapenen arabera, Hirigintza batzordeak 2020ko abenduaren 18an emandako aldeko diktamena ikusita, udalbatzarrak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 107.5 artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, gaia eztabaidatu ondoren eta **AHO BATEZ** (12 baiezko boto; gehiengo absolutua, beraz), **HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- Espedientean sartzea erabaki honen azalpen-zatian aipatzen diren pertsonak aurkeztutako alegazioak eta horiek onartu eta ezestea, azalpen-zati horretan adierazitako moduan.

2.- Alkatetzaren urtarrilaren 2ko 1/2020 Dekretua interes publikorako kaltegarria dela deklaratzeko. Dekretu horrek erabaki zuen udal obra-baimena ematea MARINA LERTXUNDI MANTEROLARI, MARTIN GARRO SOLLAREN izenean, Orioko Bikamiota eremu urbanistikoko 10. partzelan (Bikamiota, 9. zenbakia) familia bakarreko etxebizitza bat egiteko baldintza jakin batzuekin. Erabaki hori deuseztagarria da, ordenamendu juridikoa hautsiz hartu delako, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48.1 artikulua argitan. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Lege horren 107. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- Inpugnatzea egintza administratibo deuseztagarri hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 107.1 artikulua xedatutakoaren arabera.

4.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren egintzak egin ditzan.

5.- Erabaki honen berri ematea espedientean interesa dutenei.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ofizioz hasi behar izan zuela prozedura, goian aipatutako urtarrilaren 2ko 1/2020 zenbakidun dekretua egintza deuseztagarria deklaratzeko, ikusita zuinketa-aktan izandako akatsak eta antolamendu urbanistikoa betetzeari buruzko irregulartasunak. Hori dela eta, kanpoko txosten juridiko bat eskatu zuen eta, gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko, espediente bat tramitatu zuen, gero egintza administratibo hori Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean inpugnatzea ekarri duena.

7.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA PUNTUALARI. ALDAKETA PUNTUALA DIKEKOFRADIA EREMU URBANISTIKO EZ-JARRAITUEI DAGOKIE ETA DIKEKO KONTZERTAZIO BATZORDEAK SUSTATU DU.



Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du.

Orioko udalbatzarrak 2018ko abenduaren 27an egindako ezohiko bilkuran behin betiko onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko martxoaren 14an argitaratutako plangintza- eta kudeaketa-hitzarmenaren esparruak arautzen du Dike-Kofradiako esku-hartzea. Hitzarmen hori Orioko Udalak, Orioko San Nikolas arrantza-kofradiak eta Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 14. eremuko —Dike— Kontzertazio Batzordeak sinatu zuten. Azken horrek ordezkatzeko du Dike azpierzemuko lurren jabetza osoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintza Erakundearen Erregistroan inskribatuta dago.

Aldaketa puntual hori hitzarmen horretatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak betetzeko ezartzen da, eta aurrea hartzen dio Orioko 2012ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko dokumentuaren tramitazioari, 2018an onartutako eta Dikeko Hitzarmen Batzordeak Udalak eskuordetuta sustatutako HAPOa berrikusteko irizpide eta helburu orokorren arabera egingo dena. Aldaketa puntualak barne hartzen ditu 2012ko HAPOko Dikearen 14. eremua eta Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziko Kofradia eremua, bizitegiarako erabilera nagusia duen hiri lurzoru ez-jarraitua osatuz: eraikuntza-programa Diken gauzatuko da eta Kofradiako orubea ekipamendu publikorako eta pribaturako (Kofradia erabilera) lurzoru gisa kalifikatuko da.

Aldaketa puntualaren dokumentu urbanistikoak Dike-Kofradia eremu ez-jarraituaren egiturazko antolamendua eta antolamendu xehakaturak biltzen ditu eta, horrela, garapen-planeamendua formulatu beharra saihesten du. Idazketaren kostua Kontzertazio Batzordeak hartuko du bere gain eta eremu ez-jarraituaren jabeen artean ordainduko dute.

Era berean, dokumentu urbanistiko horrek antolamenduaren koordinazioa bermatzen du Dike eta Kofradia azpierzemuen eta dagoeneko garatuta dauden eremu mugakideetan ezarritako antolamenduaren artean, eta bermatzen du antolamenduaren funtsezko elementu komunitarioak artikulatzen direla eta indarrean dagoen plangintza orokorrean ezarritako sistema orokorrekin integratzen direla.

Espedientearen parte dira, baita ere, inpaktu linguistikoa ebaluatzeko dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa. Horiek ere jendaurrean jarri behar dira 45 laneguneko epean, lurraldea antolatzeko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 5.2 artikuluan eta 27.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Udal-idazkariak 2020ko uztailaren 17an txostena egin zuen gaiari buruz eta bertan erabaki-proposamen hau egiten dio udalbatzarrari:

LEHENENGOA.- LEHEN ONARPENA EMATEA DIKE eta KOFRADIA eremuei dagokien Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualari.



BIGARRENA.- JENDAURREAN JARTZEA dokumentu hori, hilabeteko gutxieneko epean, iragarki bana argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, probintziako tirada handieneko egunkarian eta Udalaren egoitza elektronikoan, interesdunek aukera izan dezaten alegazioak aurkezteko. Ingurumen-azterketa estrategikoa ere jendaurrean jarriko da epe horretan, interesdunek aukera izan dezaten aztertu eta bidezkoztat jotzen dituzten alegazio eta iradokizunak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- BERTAN BEHERA UZTEA onarpenak, baimenak eta lizentziak indarrean dagoen erregimen urbanistikoa aldatzen den inguruetan, plana idatzi duen taldeak sortu dituen eta espedientean jasota dauden plano eta dokumentuen arabera. Bertan behera uzte horrek bi urteko iraupena izango du, gehienez, Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 85.5 artikuluaen arabera. Bertan behera uzte hori eremu hauetan da aplikatzekoa: DIKE eta KOFRADIA.

LAUGARRENA.- Lehen onarpenaren berri ematea sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon daitezten eta txostena egin dezaten.

Udal-arkitektoak 2020ko abenduaren 10ean emandako txostenak hauek jasotzen ditu ondorio gisa:

El documento presentado y los trámites previos realizados se consideran completos para su tramitación.

La propuesta de modificación puntual planteada para el ámbito Dike-Kofradía, por los motivos expuestos en el corpus de este informe, no es a nuestro entender adecuada ni conveniente, ni está suficientemente justificada. Consideramos que las edificabilidades propuestas no son adecuadas para el entorno en el que se ubica. Es por ello, que informamos desfavorablemente para su tramitación y aprobación.

No obstante, los parámetros planteados en dicha modificación son coincidentes con el convenio firmado, si bien en la última propuesta del edificio de Cofradía la Dotación privada construida en dicho edificio es de 187m² en vez de los 500 previstos. No sabemos cómo se plantea solventar la afección de esta diferencia.

Con respecto al cumplimiento de los estándares urbanísticos entendemos que los equipamientos correspondientes a otros equipamientos de sistemas de dotación local deberán ser completados mediante la cesión en su caso de espacios construidos en el propio ámbito de Dike.

Se deberán corregir a nuestro entender algunos de los aspectos señalados en la Normativa General y particular planteada.

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta lurraldea antolatzekeo planak eta hirigintza-antolamenduko



tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan xedatutakoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza batzordeak 2020ko abenduaren 18an diktaminatutakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Iburguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ) eta Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ); guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari. Aldaketa puntuala Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokie eta Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatu du.

2.- JENDAURREAN JARTZEA espediente hori, 45 laneguneko epean, lurraldea antolatzeko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 5.2 artikulua araberara.

Inpaktu linguistikoaren ebaluazioaren dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere espedientearen daude, eta jendaurrean jarriko dira aipatutako epean.

3.- BERTAN BEHERA UZTEA, bi urteko gehieneko epean, onarpenak, baimenak eta lizentziak antolamenduaren eremu osoan, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 85. artikulua araberara.

Bertan behera uzte hori, betiere, aldaketa hau behin betiko onartzen denean iraugiko da.

Espedientea Udal Bulego Teknikoan jarriko da ikusgai, 45 laneguneko epean, iragarkia azken aldiz argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek aukera izan dezaten alegazioak aurkezteko.

4.- Lehen onarpenaren **BERRI EMATEA**, sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon daitezten eta txostena egin dezaten 45 laneguneko epe berean, lurraldea antolatzeko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27.2 artikulua araberara.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate lehen alkateordeak hartzen du hitza, Hirigintza batzordearen buru den aldetik, eta adierazten du 2014. urtean hasi zela Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesua. Hasiera batean, Dike eta Arozena eremuak batera lantzea aurreikusita zegoen hirigintza-antolamendu berrian, baina Arozena eraikina katalogatuta dagoenez, zailtasunak ditu hirigintza-



antolamendurako. Udalak han zentro geriatriko bat ezartzea ere planteatu zuen, baina Gipuzkoako Foru Aldundia proposamen horren kontra agertu zen.

Ainara Munduatek aurrekariak azaltzen ditu: 2005eko martxoaren 7an Orioko Udalak eta Orioko Arrantzaleen Kofradiak hitzarmen urbanistiko bat sinatu zuten, kofradiaren jabetzako lurren antolamendu eta kudeaketarako, kofradiaren eraikinari zegokiona; horren bidez, exekuzio-unitate bat mugatu zen lurzoru urbanoan, barne hartzen zituena Kofradiaren jabetzako lurrak eta eremua berrantolatze beharrezko jabari publikoko lurrak, aprobetxamendu urbanistikoa lehenbizikoek bakarrik sortzen zutela. Horren ondorioz, Kofradiaren eraikina aurri urbanistikoan deklaratu zen eta, ondoren, eraitsi egin zen, eta berariaz debekatu zen bizitegitarako erabilera eremu horretan, Kostaldean araudian xedatutakoaren arabera.

Bestalde, Ainara Munduatek adierazten du Orioko udalbatzarrak 2018ko abenduaren 27an egindako ezohiko bilkuran behin betiko onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko martxoaren 14an argitaratutako plangintza- eta kudeaketa-hitzarmenaren esparruak arautzen duela Dike-Kofradiako esku-hartzea. Hitzarmen hori Orioko Udalak, Orioko San Nikolas arrantzale-kofradiak eta Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 14. eremuko -Dike- Kontzertazio Batzordeak sinatu zuten. Azken horrek ordezkatzen du Dike azpierzemuko lurren jabetza osoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintza Erakundearen Erregistroan inskribatuta dago.

Ainara Munduatek dio, baita ere, aldaketa puntual hau hitzarmen horretatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak betetzeko ezartzen dela, eta aurrea hartzen diola Orioko 2012ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko dokumentuaren tramitazioari, 2018an onartutako eta Dikeko Hitzarmen Batzordeak Udalak eskuordetuta sustatutako HAPOa berrikusteko irizpide eta helburu orokorren arabera egingo dena. Aldaketa puntualak barne hartzen ditu 2012ko HAPOko Dikearen 14. eremua eta Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziko Kofradia eremua, bizitegitarako erabilera nagusia duen hiri lurzoru ez-jarraitua osatuz: eraikuntza-programa Diken gauzatuko da eta Kofradiako orubea ekipamendu publikorako eta pribaturako (Kofradia erabilera) lurzoru gisa kalifikatuko da.

Azkenik, Ainara Munduatek adierazten du espedienteak jasotzen dituela, baita ere, inpaktu linguistikoa ebaluatzeko dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa, eta, aldez aurretik, herritarrek parte hartzeko dagokion programa egin dela, eta gaiaren arabera eskumena duten erakunde publiko sektorialekin egindako txostenak jaso direla. Adierazten du egia dela udal-arkitektoak kontrako txostena eman duela aldaketa puntualako espediente urbanistiko hau tramitatu eta lehen onarpena emateari buruz; baina egia da, baita ere, bai udal-idazkariak egindako txosten juridikoa eta bai kanpoko txostena aldekoak direla, eta nabarmendu behar da URA ur-agentziak aldeko txostena eman duela Kofradiako azpierzemuko itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko babes-eremuan proiektatutako erabilerei dagokienez. Horregatik guztiagatik, adierazten du aldaketa puntual honen tramitazioa argia eta gardena izan dela.



Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du oraingo honetan ezin izan dela ahobatezko adostasunik lortu udalbatzarra osatzen duten talde politiko guztien artean, aldaketa puntual honi lehen onarpena emateko, bere talde politikoari kezka sortu baitzaizkio Dikeko azpieroaren hirigintza-antolamenduari buruz eta Toki-Alai eta Arozena eremu urbanistikoari buruz. Kezka horiek direla eta, bere talde politikoak Dike azpieroaren hirigintza-antolamendurako zenbait aukera xehetasunez aztertzea eskatu zuen eta eskari hori ez da kontuan hartu. Hori dela eta, bere talde politikoak abstentzio-botoa eman behar izan du.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EEren izenean, eta adierazten du Dike-Kofradia Kontzertazio Batzordeak sustatutako Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa puntuala, Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituari dagokiona, hirigintza-antolamendu egokia dela Orioko herriarentzat eta Dike eta Kofradia azpieroetarako. Azpimarratzen du aldaketa puntual hori garatzeko, hiru proposamen desberdin egon direla mahai gainean aztergai eta, beraz, ez dela egia esatea ez direla alternatibak aztertu.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN plataformaren izenean, eta adierazten du pena eman diola udalbatzarraren erabaki hau aho batez hartu ez izana. Bere talde politikoak faltan bilatu du, bereziki, EAJk Orioko Arrantzaleen Kofradia aipatzea. Adierazten du, baita ere, ez dagoela ados espediente urbanistiko honetan kontrako txostenak daudela esatearekin, egia bestelakoa baita: legezkotasunari buruzko txosten guztiak aldekoak dira.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez duela ulertzen EAJ talde politikoak aurreko agintaldian aldaketa puntual honen alde bozkatea eta, aldiz, udalbatzar honetan abstentzio-botoa ematea. Hala ere, adierazten du aldaketa puntual honi lehen onarpena emateko udalbatzarrak hartu duen erabakia erabaki estrategikoa dela, beharrezko txosten tekniko eta juridikoak bildu direla eta, beraz, ondorioztatu daitekeela aldaketa puntualaren tramitazioa argia eta gardena izan dela.

Azkenik, Andoni Torres zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du agintaldi honetan EAJ talde politiko osatzen duten zinegotzi berriei informazioa falta izan zaiela Dike eta Arozena eremuetako hirigintza-antolamenduko proposamen eta alternatibei buruz.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Gabonetako argiztapen berriak ilusio handia sortu duela oriotarren artean. Udalak orain arte alokairuan hartzen zituen argiak, urtero 12.000 euro ordainduta eta aurten inbertsio estrategiko bat egin du eta erosi egin ditu. Adierazten du, baita ere kontuan hartuko dituela, datozen urteotarako, Goiko Kanean eta Anibarko Portuan ere argiak jartzeko jaso dituen proposamenak.



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Bukatzeko, alkateak adierazten du 2020a urte zaila eta gogorra izan dela, batez ere COVID-19ak sortutako pandemiaren eraginagatik. Gabonak ere gogorrak izango dira eta, hori dela eta, besarkada goxoa eskaini nahi die oriotar guztiei.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako inork hitza hartu ez duenez, alkateak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,